

# Nire egunkaria

## 6. maila

izen-deiturak:





## **1. A. NIRE AURKEZPEN TXARTELA**

**Egunkaria hasteko nor zaren idatzi beharko duzu. Izen – abizenaz gain zure hiru ezaugarri positibo jarriko dituzu eta haien azalpena egin.**

**Badakizu agendan eta bertze zenbait koadernotan zure datuak idazteko eskatzen zaizula, galduz gero norena den jakiteko. Koaderno berezi honekin ere antzeko zerbaite egingen duzu.**

**IZENA:**

**DEITURAK:**

**EZAUGARRI POSITIBOAK:**

**1. (Bertzeek nitaz erraten duten zerbaite positiboa izan daiteke):**

**Ni.....naiz.**

**Azalpena: .....**

.....

.....

**2. (Nire zaletasunen bat izan daiteke)**

**Ni.....naiz.**

**Azalpena: .....**

.....

.....

**3. (Nik ongi egiten dudan zerbaite, nire gorputzetik edo izaeratik gustatzen zaidan zerbaite izan daiteke):**

**Ni.....naiz.**

**Azalpena: .....**

.....

.....

**Ezaugarri positiboak idaztea hagitz ongi dago, dudarik gabe. Baina, badoznera hau norbaiti irakurtzeko baimena ematen badiozu, ongi legoke zutaz zerbait gehiago jakitea.**

**Idatzi orri honetan zeintzuk diren zure zaletasunak. Norekin dituzun harremanak. Norekin bizi zaren. Nortzuk diren zure gurasoak eta anaia-arrebak, zure maskoten izenak (baldin badituzu). Zein liburu mota irakurtzea duzun gustukoa. Zein kirola maite duzun (gehien maite duzun kirola "sofing" egitea baldin bada, hori ere jartzen ahal duzu, jakina). Nolako den zure etxea. Non jaio zinen zu eta zure etxeok. Zure familian dagoen pasadizo xebreren bat...**

**Ni**.....  
 .....  
 .....  
 .....  
 .....  
 .....  
 .....  
 .....  
 .....  
 .....  
 .....  
 .....  
 .....  
 .....  
 .....  
 .....  
 .....  
 .....

**KAPITULU ETA ARIKETA HONI BURUZKO ZURE IRITZIA:**

Zertan lagundu dit?	Nolako izan da?	Nola sentitu zara?
Nire burua hobeto ezagutzen: ..... <input type="checkbox"/>	Hagitz interesgarria: ... <input type="checkbox"/>	Identifikatuta: ..... <input type="checkbox"/>
Nire burua positiboki baloratzen: ..... <input type="checkbox"/>	Interesgarria: ..... <input type="checkbox"/>	Triste: ..... <input type="checkbox"/>
Ingurukoak hobeto ezagutzen: ..... <input type="checkbox"/>	Aspergarria: ..... <input type="checkbox"/>	Haserre: ..... <input type="checkbox"/>
Nire kideekiko harreman hobek izaten:.. <input type="checkbox"/>		Pozik ..... <input type="checkbox"/>
		..... <input type="checkbox"/>
<b>Zer kendu edo hobetuko zenuke?</b>		

## **2. PENTSAMENDU POSITIBOEN TXOKOA**

**Martinek bizitzari buruz duen ikuspegi negatiboa ezagutu duzu gaurko kapituluan. Denok bizitzen ditugu gustukoak ez ditugun egoerak, baina gustukoak ditugunak ere. Bizitza negatiboki ikusteko joera dutenek gustuko ez dituzten egoerei (mingarriak, ez atseginak, gogorak... egiten zaizkielako) garrantzi gehiago ematen diete gustuko dutenei baino. Horrela, balantzea egiteko orduan, ikuspegi negatiboak edo ezkorrak indar gehiago du positiboak edo baikorrak baino.**

**Erran bezala, egunero izaten ditugu gustuko egoerak eta ez gustukoak. Hemen, baina, gustukoei erreparatuko diegu.**

**Saia zaitetz egunean zehar gertatzen zaizkizun gauza onekin ohartzeko: goizean ohe gozo batean esnatzen zara, gosari goxoa izaten duzu, maite zaituzten eta maite duzun jendearekin bizi zara, nahi bertze jostailu daukazu, ikasteko eta jolasteko aukera duzu, irakurtzen badakizu eta liburuez disfrutatzekeo parada daukazu, eguerdian bazkari oparoa izaten duzu, klasetik ateratakoan lagunekin edo senideren batekin egoten zara, eguraldi ona izanez gero kirola egiteko, paseatzeko edo parkean egoteko aukera aurkezten zaizu, etxera itzultzen zarenean logelak, sukaldea, komunak, argia eta ura dituen babestokia aurkitzen duzu...**

**Kontaezinak dira egunean zehar zein zorionekoak garen ohartzeko bizitzak eskaintzen dizkigun aukerak. Baina aunitzetan ez ditugu ikusten. Betitik horrela izan delako horrela izan behar dela uste dugu. Baina ez da horrela. Munduko bertze toki batean jaio izan bagina aipatu ditugun egoera hauek ezinen genituzke bizitu.**

*Zure hozkailuan jana baldin baduzu.*

*Zure armairuan, zapatak eta arropa baldin baduzu.*

*Lo egiteko ohe bat baldin baduzu.*

*Eta zure buru gainean teilatu bat baldin baduzu, munduko %75 baino aberatsagoa zara.*

**Berako Ricardo Baroja ikastetxe publikoko ikasle ohi batek idatzitako olerkia eskaintzen dizugu, arestian aipatutakoa modu ezin hobean laburbiltzen baitu.**

*Bi lagun bi mundu*

*Zortzietan jaiki goxo-goxo lo eginda,  
gosaltzera noa pozik eta korrika,  
dutxa beroa eta arropa goxoa.  
Lagunekin eskolara ikastera banoa,  
Agur ama maitea! Eta besarkada beroa.*

*Bostetan jaiki, hotzez eta dardarez,  
gorputz minbetua, eta janaria... non ote?  
Mutiko gaixoak ez agur eta ez adiorik,  
etxolatik badoa triste eta bakarrik.  
Lantokia urrun eta egun osoa handik ezin ateri.*

*Ikasteko aukerak nik ditut ugari,  
gaur Ingeles, bihar Frantses... halere kexati.  
Orain pilota, futbola gerora, eta jostailu... hamabi.  
Ikasiz eta jolastuz egunak joan eta egunak etorri.  
Maitasuna eta lagun, zoriontasuna eta famili...  
Ahal dut izan hoberik?*

*Letrak zein diren ez daki, eskola du urrutí,  
hamalau ordu darama lan ta lan buru-belarri  
Eskuetan zapatilak josten, bere oinak berriz hutsik.  
Lagunik gabe, jostailurik gabe... baloirik ez du inoiz ikusi.  
Buruan hotz eta gose, bihotzean, bakardade...  
non zaude ama maite?*

*Egun berean jaio, orain dela 11 urte,  
ni lagunez inguraturik, zu berriz bakarrik,  
Bi lagun bi mundu.  
Eskubide berak ditugu, eta bizimodua...  
ZERGATIK EZ?*

*Joseba Martínez Guerra*

Hemen aurkezten dizugun ariketan, beraz, pentsamendu positiboak idatziko dituzu. Astean behin, gutxienez, ongi legoke, baita gehiago ere, jakina. Hala ere, hasteko gaur edo azken aste honetan izan dituzun momentu onak idatziko dituzu. Momentu on ugari izaten dugu, baina ez bagara eurekin ohartzeko... oharkabean pasatzen dira, bada!!

**EGUNA:**

**PENTSAMENDU POSITIBOA:**

Atzo mendira joan nintzen aita, ama eta lehengusuekin. Etxola txiki bat egin genuen mendian zeuden adarrekin. Primeran pasatu genuen!

---

**EGUNA:**

**PENTSAMENDU POSITIBOA:**

Gaur, eskolarako bidean Jonerekin aurkitu naiz eta eskolaraino hitz eta pitz joan gara. Ea bertze egunen batean ere elkar aurkitzen dugun!

---

**EGUNA:**

**PENTSAMENDU POSITIBOA:**

---

---

**EGUNA:**

**PENTSAMENDU POSITIBOA:**

---

---

**EGUNA:**

**PENTSAMENDU POSITIBOA:**

---

---

**EGUNA:**

**PENTSAMENDU POSITIBOA:**

---

---

**EGUNA:**

**PENTSAMENDU POSITIBOA:**

---

---

**EGUNA:**

**PENTSAMENDU POSITIBOA:**

---

**EGUNA:**  
**PENTSAMENDU POSITIBOA:**

---

---

**EGUNA:**  
**PENTSAMENDU POSITIBOA:**

---

---

**EGUNA:**  
**PENTSAMENDU POSITIBOA:**

---

---

**EGUNA:**  
**PENTSAMENDU POSITIBOA:**

---

---

**EGUNA:**  
**PENTSAMENDU POSITIBOA:**

---

---

**KAPITULU ETA ARIKETA HONI BURUZKO ZURE IRITZIA:**

<b>Zertan lagundu dit?</b>	<b>Nolako izan da?</b>	<b>Nola sentitu zara?</b>
Nire burua hobeto ezagutzen: ..... <input type="checkbox"/>	Hagitz interesgarria:... <input type="checkbox"/>	Identifikatuta:..... <input type="checkbox"/>
Nire burua positiboki baloratzen:..... <input type="checkbox"/>	Interesgarria:..... <input type="checkbox"/>	Triste:..... <input type="checkbox"/>
Ingurukoak hobeto ezagutzen:..... <input type="checkbox"/>	Aspergarria:..... <input type="checkbox"/>	Haserre:..... <input type="checkbox"/>
Nire kideekiko harreman hobek izaten:..... <input type="checkbox"/>	..... <input type="checkbox"/>	Pozik..... <input type="checkbox"/>
..... <input type="checkbox"/>		..... <input type="checkbox"/>
<b>Zer kendu edo hobetuko zenuke?</b>		



### **3. HARTZ ARREAREN IPUINA**

**Ipuinean ikusi duzun bezala, gutariko bakoitza txikitan bizi izandako esperientziek markatua bizi da. Ditugun beldur asko, txikitako beldurren ondorioa baino ez dira. Gaur egun ez genioke zenbait gauzari beldur izan beharko baina...**

**Hemen duzu sarritan izaten ditugun beldurren zerrenda bat. Ea zuk horrelako beldurrak izaten dituzun! Ez harritu, erabat arruntak dira eta!**

**Zeri diot beldur? Azpimarratu zuk izaten dituzun beldurrak:**

- **Iluntasunari?**
- **Azterketak ez gaitzeari?**
- **Errietei?**
- **Itxura txarra duen ezezagun bati?**
- **Lagunek nitaz irri egiteari?**
- **Lesionatzeari?**
- **Ekaitzei?**
- **Zakarrak diren pertsoneri?**
- **Jende aunitzen aitzinean hitz egiteari?**
- **Uretan igeri egiteari?**
- **Hegazkinetan ibiltzeari?**
- **Leku itxietan egoteari?**
- **Etxean bakarrik egoteari?**
- **Heriotzari (maite dudan norbait hiltzeari)?**
- **Lagunik gabe gelditzeari?**
- **Norbaitek ni jotzeari?**
- **Barregarri geratzeari?**
- **Zomorroi (armiarmak, sagutxoak...)?**
- **Medikuei?**
- **Altueran ibiltzeari?**
- .....
- .....

**Hurrengo pausua beldur horien aitzinean zer egiten ahal dugun jakitea da. Orain, arbelean idatziko ditugu agertu diren beldurrak eta beldur horiei aurre egiteko jarrera egokiena zein den zehazten saiatuko gara.**

**Kasu aunitzetan, beldurrak txikitatik datozkigu eta txikitan beldur horiek izatea normala bazen ere, gaur egun ez da beharrezkoa. Adibidez: haur txikiak bakarrik egoteari beldur dio, bera ez baita kapaza bakarrik deus egiteko. Amaren laguntza denetarako behar du. Baina 9-10 urtetako haur batek ez du hainbertzerako beharrik. Badaki zenbait unetan bakarrik egon daitekeela eta ez zaiola ezer gertatuko. Hala ere, adin horretako haur aunitz ez da gai istant batez ere bakarrik egiteko, oraindik txikitako beldurrek bere barnean segitzen dutelako. Beraz, kasu hauetan, lehendabiziko gauza txikitako beldur horretaz ohartzea da, alegia, bakarrik egoteagatik ez zaiola ezer gertatuko eta bakarrik egonda ere ongi egon daitekeela.**

**Goian idatzitakoa kontuan hartuta, taldeka elkartu eta ondoko koadroa betetzen saiatu. Norberak bete bere koadroa baina guztion proposamenekin.**

**Bete ondoren, arbelean idatziko ditugu talde guztiek egiten dituzten proposamenak.**

<b><i>BELDUR MOTA</i></b>	<b><i>JARRERA EGOKIA</i></b>
<b>ILUNTASUNA</b>	<b>Argi txiki bat izan logelan. Kanpaldietara linterna eramatea.</b>
<b>EKAITZAK</b>	
<b>BAKARRIK EGOTEA</b>	
<b>URETAN IGERI EGITEA</b>	
<b>HEGAZKINETAN HEGAN EGITEA</b>	
<b>ERRIETEI</b>	
<b>MEDIKUEI (dentistak, ospitaleak...)</b>	
<b>HERIOTZARI</b>	
<b>AZTERKETAK EZ GAINDITZEARI</b>	
<b>LESIONATZEARI</b>	
<b>BARREGARRI GERATZEARI</b>	

**Orain badakizu beldurra sentitzen duzunean zer nolako jarrera hartzen ahal duzun beldur hori gaingiditzeko.**

**KAPITULU ETA ARIKETA HONI BURUZKO ZURE IRITZIA:**

<b>Zertan lagundu dit?</b>	<b>Nolako izan da?</b>	<b>Nola sentitu zara?</b>
Nire burua hobeto ezagutzen: ..... <input type="checkbox"/>	Hagitz interesgarria:... <input type="checkbox"/>	Identifikatuta:..... <input type="checkbox"/>
Nire burua positiboki baloratzen:..... <input type="checkbox"/>	Interesgarria:..... <input type="checkbox"/>	Triste:..... <input type="checkbox"/>
Ingurukoak hobeto ezagutzen:..... <input type="checkbox"/>	Aspergarria:..... <input type="checkbox"/>	Haserre:..... <input type="checkbox"/>
Nire kideekiko harreman hobekiaz izaten:..... <input type="checkbox"/>	..... <input type="checkbox"/>	Pozik..... <input type="checkbox"/>
..... <input type="checkbox"/>		..... <input type="checkbox"/>
<b>Zer kendu edo hobetuko zenuke?</b>		

#### **4. FAMILIAK**

**Zer da fa familia bat? Eta zenbat familia mota aurki ditzakegu?**

**Familia bat izateko gutxienez bi kide egon behar dira eta kide horiek nolabaiteko ahaidetasun bat eduki. Beraz, bi pertsona elkarrekin bizitzeko konpromisoa hartuz gero (ezkontza edo bestelako konpromisoaren bidez) familia bat osatzen dute. Baina, era berean, andre edo gizon batek haur bat bere kargu hartu eta haur horretaz arduratzeko konpromisoa hartuz gero, familia bat osatzen du.**

**Gure inguruan, oraindik, aita, amak eta seme-alabek (bat, bi, hiru...) osatutako familia arruntena da. Baina, familia mota aunitz dago, agian zuk uste baino aunitzez gehiago.**

**Familia batzutan aita/ama eta semea/alaba bizi dira, bertze batzutan bi ama eta bi alaba, bertze batzutan aiton-amonak, seme-alabak eta ilobak, bertze batzutan leku desberdinetatik adoptatutako haurrak (berez lehen familia desberdinetakoak ziren baina orain denak familia berean bizi dira), bertze batzutan gurasoak banatuta daude eta haurrak txandaka bizi dira aita ala amarekin...**

**Beraz, ikus dezagun adibide baten bidez, zer den kontutan hartu behar duguna, familia mota desberdinak aztertzeke orduan,?:**

**Zure familia aztertuko duzu, bertzeen familiak aztertu baino lehen.**

**Zure etxean zenbat kide bizi zarete?: .....**

**Zenbat heldu?: .....**

**Zenbat haur?: .....**

**Aita eta amarekin bizi zara, bananduta daude edo ez zara ez batekin ezta bertzearekin bizi? .....**

**Zure etxean, bertze heldu batzuk bizi badira, zer nolako ahaidetasuna duzu eurekin (baldin baduzu, jakina), hau da, zure osaba-izeba, aiton-amona, lehengusu-lehengusina...dira? .....**

**Zure ama, ama biologikoa da (bere sabeletik jaio zinen?)?: .....**

**Eta aita, biologikoa da? .....**

**Zurekin bertze haur batzuk bizi badira, zure anaia-arrebak dira?.....**

**Ezetz erran baduzu, zer nolako ahaidetasuna duzu haur horiekin? .....**

**NOLAKOA DA ZURE FAMILIA? NOREKIN BIZI ZARA?:**

**Zure inguruan bizi diren bost familia desberdin (gelakoetatik aparte, galdetegi hau denek familia berberei ez egiteko) aukeratuko dituzu eta honako datuak bete beharko dituzu, euren etxean bizi direnei buruz::**

<b>FAMILIAK -----</b>	<b>1</b>	<b>2</b>	<b>3</b>	<b>4</b>	<b>5</b>
<b>Zenbat jende bizi da etxe berean (zenbat heldu, haur, senide eta lagun):</b>					
<b>Gurasoak elkarrekin ala bananduak dauden:</b>					
<b>Gurasoak biologikoak ala adopziozkoak diren:</b>					
<b>Zenbat haur bizi diren etxean eta denak anaia-arrebak ote diren:</b>					
<b>Zenbat heldu bizi diren etxean eta gurasoak, senideak ala lagunak diren:</b>					

**Ondorioak: Zer nolako familiak aurkitu dituzu?**

**Zenbat kideetako familiak aurkitu dituzu: 2koak: ..... 3koak:..... 4koak: ..... 5koak:..... 6koak:.....? Gehiagokoak?.....**

**Zenbat familiatan aurkitu dituzu gurasoak bananduta? .....**

**Zenbat familiatan gurasoak eta seme – alabaz gain, bertze norbait bizi da? .....**

**Guraso bakarreko zenbat familia aurkitu duzu? ..... Zenbat familiatan bizi dira haur adoptatuak? .....**

**Zenbat familiatan ez dira gurasoak haurrak zaintzen dutenak? .....**

**Ikusten duzunez, kopuru txikian bada ere, ezagunena den familia motaz gain bertze familia mota ugari dago. Eta mota guztiak baliagarriak dira, ez da bata bertzea baino hobe.**

## **5. TRIPTIKOA**

**Gaurkoan Marianek bere ikasleei egiteko eskatu diena eginen dugu guk ere. Ezer baino lehen, orri zuri bat hartu, hiru zatitan tolestatu eta triptiko bat lortu. Azalean zure izena eta marrazkia egin behar duzu. Atzeko orrialdean zure izaera deskribatzen duten ezaugarriak idatzi. Adibidez: Ni, gehienetan, hagitz zintzoa naiz nahiz batzutan zakarra ere izaten naizen. Edo; ni hagitz lotsatia naiz eta lagun gutxirekin egotea gustatzen zait. Soka saltoan aritzea dut gustukoa. Hiruzpalau minutu izanen dituzu ezaugarriak idazteko.**

**Atal hau bete ondoren, triptikoaren eskuinaldean agertzen den orrialdea bete behar duzu: Nola gustatuko litzaidake izatea? Orrialde horretan nahiko zenituzkeen ezaugarriak idatzi dituzu: goapoago, atseginago, langileago... izatea nahi nuke. Berrito hiruzpalau minutu izanen dituzu atal hau bukatzeko.**

**Triptikoa: Hiru zatitan tolestatu. Kanpoko aldea. Nire iritzia.**

<b>Nolako izatea gustatuko litzaidake?</b>	<b>Nolako naiz, nire ustez?</b>	<b>Izena eta marrazkia</b>

**Lana bukatutakoan, triptikoa zure izena duen gutun-azal batean sartuko duzu. Jarraian, bertze gutun-azal bat hartuko duzu eta bertan ikaskideen izenak dakartzan fitxak aurkituko dituzu. Fitxa bakoitzak ikaskide baten izena dakar eta bertan ikaskide bakoitzari buruz ezaugarri positibo bat idatzi beharko duzu. Fitxa guztiak betetzeko 15 minutu izanen dituzu. Fitxak bete ondoren, mahai gainean dauden gutun-azaletan sartu dituzu, fitxa bakoitza dagokion izenarekin jarritz.**

**Ariketa bukatzean, zure izeneko gutun-azal barrenean dauden fitxak hartu eta , irakurri ondoren, triptikoko erdiko orrialdean itsatsi.**

**Barneko aldea. Bertzeek nitaz errandakoa itsatsi.**

<b>Lagunek nitaz duten irudia:</b>	<b>Lagunek nitaz duten irudia:</b>	<b>Lagunek nitaz duten irudia:</b>

**KAPITULU ETA ARIKETA HONI BURUZKO ZURE IRITZIA:**

<b>Zertan lagundu dit?</b>	<b>Nolako izan da?</b>	<b>Nola sentitu zara?</b>
Nire burua hobeto ezagutzen: ..... <input type="checkbox"/>	Hagitz interesgarria:... <input type="checkbox"/>	Identifikatuta:..... <input type="checkbox"/>
Nire burua positiboki baloratzen:..... <input type="checkbox"/>	Interesgarria:..... <input type="checkbox"/>	Triste:..... <input type="checkbox"/>
Ingurukoak hobeto ezagutzen:..... <input type="checkbox"/>	Aspergarria:..... <input type="checkbox"/>	Haserre:..... <input type="checkbox"/>
Nire kideekiko harreman hobekak izaten:..... <input type="checkbox"/>	..... <input type="checkbox"/>	Pozik..... <input type="checkbox"/>
..... <input type="checkbox"/>		..... <input type="checkbox"/>
<b>Zer kendu edo hobetuko zenuke?</b>		

## **6. HERIOTZA?**

**Ipuina ez da bukatu baina... orain zuei dagokizue bukatzea. Bukatzen duzuenean bertzeekin konpartituko dugu zein bukaera eman diozuen, hitz gutxitan. Horren ondoren ipuinaren egileak asmatu zuen bukaera irakurriko duzue.**

*Eta gehiago erran gabe botila barreanean sartu zen. Barruan zegoenean Xantik tapoia jarri zion.*

*Poz – pozik, ospitalera hurbildu zen atautxi bisitatzeraz. Han zegoen, bizkortuta, itxura osasuntsuarekin.*

- *Egunon Xanti- erran zion atautxik, atetik sartzen zela ikusi bezain fite.*
- *Egunon atautxi- zer moduz zaude?*
- *Hagitz ongi maitea. Horrela segitzen badut gaur bertan eramanen naute etxera!- erantzun zion atautxik, benetan kontent.*
- *Ongi etorria prestatuko dizugu, ba!- erran eta etxera joan zen amari berria ematera.*

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....



*Segi Egunkariko 5. kapitulua irakurtzen.*

**Orain bai, orain ipuina bukatu da.**

**Zerikusirik ba al zuen zure bukaerak eta ipuinean agertzen denak?**

.....  
.....

**Heriotzarik ez egoteak horrelako ondorio ekar lezakeela aurre ikusten al zenuen?**

.....  
.....

**Orain ariketa bat eginen dugu. Orri honetan idatziko duzu zer gertatuko litzateke Heriotzak, bat-batean, oporrak hartuko balitu. Ipuinean ondorio batzuk ikusi ditugu baina seguru zuri ere ondorio gehiago bururatzen zaizkizula.**

.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....

**Denen ondorioekin arbelean zerrenda bat eginen dugu. Baten bat aurreko zerrendan ez badago zure zerrendari gehitu!!**

**Bukatzeko galdera hau erantzun:**

**Heriotzarik gabe bizitzarik egon daiteke?**

**KAPITULU ETA ARIKETA HONI BURUZKO ZURE IRITZIA:**

<b>Zertan lagundu dit?</b>	<b>Nolako izan da?</b>	<b>Nola sentitu zara?</b>
Nire burua hobeto ezagutzen: ..... <input type="checkbox"/>	Hagitx interesgarria:... <input type="checkbox"/>	Identifikatuta:..... <input type="checkbox"/>
Nire burua positiboki baloratzen:..... <input type="checkbox"/>	Interesgarria:..... <input type="checkbox"/>	Triste:..... <input type="checkbox"/>
Ingurukoak hobeto ezagutzen:..... <input type="checkbox"/>	Aspergarria:..... <input type="checkbox"/>	Haserre:..... <input type="checkbox"/>
Nire kideekiko harreman hobeak izaten:.. <input type="checkbox"/>		Pozik..... <input type="checkbox"/>
		..... <input type="checkbox"/>
<b>Zer kendu edo hobetuko zenuke?</b>		



## **7. DENOK GAUZA BERA ULERTZEN DUGU?**

**Gaurko kapituluan erraten duguna eta ulertzen duguna ez dela gauza bera ikusi dugu. Orain irakasleak antzeko marraskia deskribatuko dizue. Antzekoa, baina ez marraski bera! Ea zer moduz egiten duzuen!**

**Marraskia arkatzez egin ezazu, gaizki egiten duzuna zuzendu ahal izateko. Zalantzaren bat izanez gero, galdetu irakasleari.**

**Orain marrazkiak konparatzeko ordua da. Erantzun, mesedez, galdera hauek eta gero gelako kideekin konpartitu zure erantzunak.**

**Marrazki orijinala eta zuk egindakoa berdina dira?**

.....  
.....

**Zuk egindakoa eta zure kideek egindakoak berdina dira?**

.....  
.....

**Zein arazo aurkitu duzu irakasleak komunikatzen zuena ongi ulertzeko?**

.....  
.....

**Marrazkiekin gertatu zaiguna, edozein arlotan gertatzen zaigula uste duzu? Hau da, edozein eztabaidetan alde batek erraten duena eta bertze aldeak ulertzen duena ez dela berdina uste al duzu?**

.....  
.....

**Zergatik uste duzu sarritan elkar ezin ulertuak egoten direla?**

.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....

## KOMUNIKAZIOAREN GAKOAK

**Gatazka batean sartuta gaudenean, gatazkaren arrazoiak eta berau gainditzeko bideak zeintzuk izan daitezkeen aztertu beharko genuke. Azterketa hori, jakina, gatazkan inplikaturik dagoen bertze aldekoekin egin beharko genuke, benetan eragingarria izanen bada.**

**Bertze aldearekin, beraz, komunikatu behar dugu. Baina sarritan, marrazkiarekin gertatu bezala, komunikazioa ez da hagitz eraginkorra. Ikus ditzagun, bada, komunikazioa ongi garatzeko beharrezkoak diren bost gakoak:**

- 1. Presarik ez. Arazo bati buruz hitz egin nahi badugu, lasaitasunez hitz egin behar dugu, presarik gabe.**
- 2. Arretaz entzun. Bertzeak hitz eta gorputzaren bidez erraten diguna arreta osoz entzun behar dugu, berak erran nahi diguna moztu gabe. Gure arreta bertze estimulu batzuetan jarriz gero (inguruko lagunengan, telebistan ematen duten zerbaitetan, guk eman nahi diogun erantzunean) ez diogu erran nahi diguna zehaztasunez ulertuko.**
- 3. Ulertu duguna errepikatuko diogu, ea berak erran diguna eta guk ulertu duguna bat datozen.**
- 4. Gure sentimenduak. Bertzeak erraten digunak nola sentiarazten gaitu? (triste, haserre, etsituta, izututa.../ kontent, lasai, indartsu, patxadaz). Bertzeari adierazi berak erran diguna entzun ondoren nola sentitzen garen.**
- 5. Pertsona ez kritikatu. Norbaitek egin duena ez bazaigu egokia iruditzen ez dugu pertsona hori kritikatu, bere jokabidea baizik.**

**Arazoa duten bi pertsonak, edo taldeek, urrats hauek segituz gero, konponbide egokira ailegatzeko pausuak ematen ari dira. Zuk ere, aurkezten zaizun hurrengo gatazkan, jar itzazu praktikan.**

**Goiko aholkuak zuen gelako "Belarri txokoan" jartzea ongi legoke. Horrela, gatazka bat duzuenean, hara joan zaitezketen bertan inplikaturikoak eta elkarri entzun, elkarrizketaren bidez gatazka konpontzeko asmoarekin, jakina.**

### KAPITULU ETA ARIKETA HONI BURUZKO ZURE IRITZIA:

Zertan lagundu dit?	Nolako izan da?	Nola sentitu zara?
Nire burua hobeto ezagutzen: ..... <input type="checkbox"/>	Hagitz interesgarria:... <input type="checkbox"/>	Identifikatuta:..... <input type="checkbox"/>
Nire burua positiboki baloratzen:..... <input type="checkbox"/>	Interesgarria:..... <input type="checkbox"/>	Triste:..... <input type="checkbox"/>
Ingurukoak hobeto ezagutzen:..... <input type="checkbox"/>	Aspergarria:..... <input type="checkbox"/>	Haserre:..... <input type="checkbox"/>
Nire kideekiko harreman hobekiaz izaten:.. <input type="checkbox"/>		Pozik..... <input type="checkbox"/>
		..... <input type="checkbox"/>
<b>Zer kendu edo hobetuko zenuke?</b>		

## **8. BITARTEKARIAK**

**Bitartekaria izatea ez da gauza erreza. Horixe ezetz!. Hala ere, hagitz lan polita da, nola egin behar den ikasiz gero.**

**Orain hiru kasu hipotetiko ikusi eta antzeztuko ditugu.**

**Hona hemen hiru kasuak:**

- 1. Bi anaia-arreba oihuka ari dira. Anaiak arrebari bakean uzteko erraten dio eta arrebak, zertan jolastu aukeratzeko orduan, berari sekula ez diola kasurik egiten leporatzen dio.**
- 2. Aita – semea haserre. Semeak atera nahi du lagunekin eta aitak ez dio baimenik ematen, atera zen azkeneko aldian hagitz harrotuta itzuli zelako etxera.**
- 3. Bi ikaskide borrokan ari dira. Baloia galdu dute eta errua elkarri leporatzen diote.**

**Hirunaka jarriko zarete; bik erasotzaileen papera jokatuko dute eta hirugarrenak bitartekariena. Talde bakoitzak hiru kasuak antzeztuko ditu baina paperak aldatuz. Modu horretan, hirurak izanen zarete, kasuren batean, bitartekariak.**

**Hamabost minutu izanen dituzue zuen artean antzezpenak egiteko, kasu bakoitzeko bost minutu. Bukatutakoan, denok batera, bitartekaria izateko zein zailtasunak aurkitu dituzuen eta zailtasunak gainditzeko zein pausu segitu beharko genuke aztertu eta hurrengo orrialdeko taulan apuntatuko duzue.**

**Bukatzeke, gelakide guztien artean errandakoarekin gelako taula osatuko dugu.**

**BITARTEKARIA IZATEKO ZAILTASUNAK ETA GAINDITZEKO BIDEAK**

<b>ARAZOAK</b>	<b>GAINDITZEKO BIDEAK</b>

**KAPITULU ETA ARIKETA HONI BURUZKO ZURE IRITZIA:**

<b>Zertan lagundu dit?</b>	<b>Nolako izan da?</b>	<b>Nola sentitu zara?</b>
Nire burua hobeto ezagutzen: ..... <input type="checkbox"/>	Hagitz interesgarria:... <input type="checkbox"/>	Identifikatuta:..... <input type="checkbox"/>
Nire burua positiboki baloratzen:..... <input type="checkbox"/>	Interesgarria:..... <input type="checkbox"/>	Triste:..... <input type="checkbox"/>
Ingurukoak hobeto ezagutzen:..... <input type="checkbox"/>	Aspergarria:..... <input type="checkbox"/>	Haserre:..... <input type="checkbox"/>
Nire kideekiko harreman hobekak izaten:.. <input type="checkbox"/>		Pozik..... <input type="checkbox"/>
		..... <input type="checkbox"/>
<b>Zer kendu edo hobetuko zenuke?</b>		

## **9. KRITIKAK**

**Kritikak egiten ditugunean ez gara ohartzen pertsona batzuentzat zein mingarriak izan daitezkeen eta zein ondorio ekar ditzaketen.**

**Hurrengo istorio hau irakurri ondoren zure iritzia emanen duzu:**

Marian maitea:

Oroitzen naiz nolakoa izan zen nire lehenbiziko eguna kolegio berrian. Iraileko goiz beroa zen, ekainekoa iduri, nire auzoko eskolan 5. maila bukatzeaz nengoela.

Etxe berean bizi baginen ere, nire familiak erabaki zuen eskolaz aldatu behar nuela. Nire ikaskideek ez omen ninduten ulertzen: oso argia omen nintzen. Uste

nuen argia izatea suerte handia zela, opari bat, bertute bat, baina niri disgustu izugarriak besterik ez dit eman. Irakasleak azterketa bat zuzenduta bueltatu eta hamar ateratzen nuenean, edo galderei beti ongi erantzuten nienean, begirada burlazkoak ikusten nituen nire gelakideen begietan, komentarioak eta zurrumurruak.

Gero, patioan eta kalean nire belarriez, nire betaurrekoez, nire ibilera traketsaz burlatzen ziren. Nik ikusten nuen beste gelakide batzuek ere bazituztela gorputzeko akatsak, baina niri egiten zidaten burla. Pentsatu nuen hori argia nintzelako egiten zutela eta ezin nuen ulertu.

Iraileko goiz bero hartan ni eskola berri batera joatekoa nintzen. Espero nuen han dena diferentea izanen zela. 6. mailako gelara sartu nintzenean zuk lista pasatu eta eskatu zenigun denoi labor kontatzeko nola pasatu genuen uda. Gelako gehienek hiru urtetatik ezagutzen zuten elkar, adiskideak ziren eta askok elkarrekin pasatu zuten uda.

—Nik Hektor dut izena, berria naiz eta nire oporretatik, gauzarik aipagarriena da egun honek egiten zidan ilusioa —esan nuen, egia.

—Zein kutrea! —erantzun zuen boz batek eta zuk ez zenuen ezer esan.

Nik ere ez nuen erantzun, ez nekien zer egin; baina pentsatu nuen: “Hara, berriz sartu dut hanka”.

Lehenbiziko bizpahiru asteetan ezer esan gabe egon nintzen. Denek begiratu egiten zidaten, baina inor ez hurbiltzen. Goiz batean (uste dut urria zela ja), Tomasek gozokiak eramane zituen gelara bere urtebetetzea zelako: bina goxoki; baina ez zuen nirekin kontatu, agidanean ez nintzen harentzat existitzen. Ez dakit oroituko zaren, Marian: Tomasi eskatu zenion bereak niri emateko, etxean sobrante izango zituela eta, etxera joanda nahi adina jango zituela. Tomasek obeditu zuen eta gozokiak eman zizkidan, eta gaur balitz bezala oroitzen naiz zer aurpegia jartzen zuen: ezpainak estututa eta beltzuri. Mesprezioz bota zizkidan gozokiak mahai gainera.

Aurreko eskolan Dunbo edo txorimalo banintzen, orain goxoki lapurra nintzen, eta pinturak, estutxeak eta dena ezkututzen zidaten, motxila ere bai. Nik ulertzen nuen Tomasen haserrea, baina ez hainbeste irautea eta ez neska-mutil guztiek harekin bat egitea. Tomasengana hurbildu nintzen.

—Utzi bakean, buruhandia —moztu zidan hark, bizkarra emanaz.

Besteek barre egin zuten. Seigarren maila oso nota onekin bukatu nuen, baina bakarrik. Kalean ere ez neukan adiskiderik. Normalean ikaskideen lagunak ikaskideak berak izaten ziren. Baina ni...

Institutura hasi nintzenean erabaki nuen ezertan ez nabarmentzea eta ikasi besterik ez egitea. Ez nien utziko berriz baztertzen, eta hori galarazteko bide bakarra zen neuk neure burua baztertzea. Bigarren Hezkuntzako sei urteak liburuetatik etxera eta etxetik liburuetara pasatu nituen. Ikasi eta irakurri, irakurri eta ikasi, besterik ez nuen egiten. Liburuetako pertsonaiek on egiten zidaten, ezin zidaten minik egin eta esaten zizkidaten gauzek helduago egiten ninduten baina minik egin gabe.

Ohitu naiz bakardadera, baina mingarria zait, liburuek paperezko kartzela batean bezala preso naukate. Orain, medikuntzako titulua eskuratu orduko nire lehenbiziko lana aurkitu dut auzoko osasun etxean. Beldurrez akabatzen nago badakidalako kontsultara sartzen den lehenbiziko pertsonak barre egingo didala.

Zuri idazten dizut, Marian, zu izan zinelako begietara begiratu zidan irakasle bakarra.  
Agur  
Hektor

(Iturria: Zurekin barre egin ez zure bizkar ipuin bildumatik hartutako Liburuaren kartzela ipuina. Egilea: Leonor Pérez Casajús. )

**Zer iruditu zaizu mutil honen istorioa?**

.....  
.....

**Zure ustez, nola sentitzen zen mutil hau kritiken aitzinean (“gaizki” baino zerbaiz gehiago jarri, mesedez)**

.....  
.....  
.....  
.....

**Imajinatu Hector zure gelara etorri den gelakide berria dela. Zer egin zenezake Hector hain baztertuta ez sentitzeko.**

.....  
.....

**Orain, bukaera desberdina emanen diozu ipuin honi, bukaera zoriontsua:**

Iraileko goiz bero hartan ni eskola berri batera joatekoa nintzen. Espero nuen han dena diferentea izanen zela. 6. gelara sartu nintzenean zuk lista pasatu eta eskatu zenigun denoi labur kontatzeko nola pasatu genuen uda. Gelako gehienek hiru urtetatik ezagutzen zuten elkar, adiskideak ziren eta askok elkarrekin pasatu zuten uda.

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

**Bukatzeke ikasle guztien artean asmatu-rikoko bukaera desberdinak konpartituko dituzue eta galdera hauen inguruan hausnarketa egin. Zer egiten zenukete gelara ikasle berria etorriko balitz?**

.....

.....

**Zer egin zenezakete gelan bertze ikaskideekin moldatzeko arazoak dituen ikaslea egonen balitz?**

.....

.....

**KAPITULU ETA ARIKETA HONI BURUZKO ZURE IRITZIA:**

Nire burua hobeto ezagutzen: ..... <input type="checkbox"/>	Hagitx interesgarria:... <input type="checkbox"/>	Identifikatuta:..... <input type="checkbox"/>
Nire burua positiboki baloratzen:..... <input type="checkbox"/>	Interesgarria:..... <input type="checkbox"/>	Triste:..... <input type="checkbox"/>
Ingurukoak hobeto ezagutzen:..... <input type="checkbox"/>	Aspergarria:..... <input type="checkbox"/>	Haserre:..... <input type="checkbox"/>
Nire kideekiko harreman hobekak izaten:.. <input type="checkbox"/>		Pozik..... <input type="checkbox"/>
		..... <input type="checkbox"/>

**Zer kendu edo hobetuko zenuke?**

.....



## **10. GATAZKEN EBAZPENAK**

**Orain, Marianen ikasleek egin bezala zuek ere konponbideak bilatu behar dizkiezue hemen aurkitzen zaizkizuen arazoei. Horretarako debate bat eginen dugu edo hiru, hobeto erranda, hiru egoera aztertu beharko dituzue eta.**

**Hiru talde osatuko ditugu taldekide guztien artean. Taldeak osatzeko dinamika bat eramanen dugu aitzinera: Lerro bat osatuko duzue zuen izenaren arabera. Alfabetoaren ordena segituko dugu. Horrela Ainara Aioraren aitzinean jarriko da baina Aimarren gibelean. Oihana Oierren gibelean baina Peruren aitzinean. Ulertua, ezta? Aitzinera, ba!**

**Lerroa osatu ondoren hiru talde osatu behar dituzue. Zenbat kide zarete gelan? Hamabortz? Beraz lerroko lehenengo 5ak elkarrekin, ondoren bertze bostak eta azkenik gibelesko 5ak. 12 kide bazarete 4naka jarri eta zenbakia ez bada hirukoitza talde batek edo bik kide bat gehiago ala gutxiago izanen dute.**

**Taldeak osatu ondoren, A, B eta D taldeak, hiru egoerak aztertu behar dituzue. Egoera bakoitzean paper desberdinak jokatuko dituzue. Hasieran bost minutu eduki duzue taldekideen artean egoeraz hitz egiteko eta zuen papera prestatzeko. Ondoren, 10 minutuz egoeraz eztabaidatzeko eta denen artean konponbide egokia aurkitzeko.**

**Kontutan hartu arazo bati aurkitzen diozun soluzio bakoitzak zein ondorio ekarriko duen aztertu beharko duzuela. Soluzioak ugariak izan daitezke baina baliagarriak izanen dira, soil-soilik, denentzat onuragarriak direnak.**

**Oroit ezazue, edozein arazoren aitzinean hauek direla segitu beharreko pausuak:**

- 1. Arazoa zein den definitu eta denak ados egon horixe dela arazoa eta ez bertze bat.**
- 2. Arazo horrek nola sentiarazten nau eta sentiarazten gaitu?**
- 3. Arazoa konpontzeko aukera desberdinak aztertu.**
- 4. Konponbide juxtu eta eraginkorra aukeratu.**
- 5. Alde guztiak ados egon behar dugu soluzioarekin.**

**Eztabaida batean parte hartzen duten kideen artean jarrera desberdinak azaltzen ohi dira, iritzi bera izan arren. Orokorrean hiru egoera hauek aurkitzen ditugu: oldarkorrak (agresivo), jasankorrak (pasiboak) eta asertiboak. Zuek ere saiatuko zarete zuen taldean egoera hauek agertzen eta, ahal bada, zuen ohiko jokaera ez dena aukeratu.**

**Ariketa honen helburua da benetako egoera baten aitzinean aurkitzen zaretenean, hemen segituko duzue prozesua segitzen ikastea.**

**EGOERAK**

- a) Eskolan estalita dagoen frontoi bakarra dago eta euria egiten duenean, talde batek, A taldeak, pilotan jokatu nahi du (txapelketa batean parte hartzen ari direlako) eta bertze taldeak, B taldeak, euria egiten duen egunetan txapelketarik ez egotea nahi dute. D taldekoak behatzaileak dira eta azpian agertzen diren datuak apuntatuko dituzte. 10. minutu pasatu ondoren, A eta B taldekoak akordioaren batera ez badira ailegatzen, D taldekoak ahaleginduko dira konponbiderik justuena zein den erabakitzen eta paperean ez ezik, arbelean ere apuntatuko dute.

**A TALDEAREN ARGUDIOAK**

.....

.....

.....

.....

.....

**B TALDEAREN ARGUDIOAK**

.....

.....

.....

.....

.....

**KONPONBIDE POSIBLEAK:**

.....

.....

.....

.....

.....

**KONPONBIDE JUSTUENA:**

.....

.....

**b) Eskolako kideek irteera bat eginen dute autobusez. Sarritan arazo bera gertatzen da; atzeko tokian jende aunitzek joan nahi du baina bostentzako tokirik baino ez dago. Normalean beti talde bera izaten da aulkiak hartzen dituen (B taldea) eta leku berean eseri nahi duten bertze taldeko kideak (D taldea) kanpoan gelditzen dira. A taldekoak behatzaileak dira eta azpian agertzen diren datuak apuntatuko dituzte. 10. minutu pasatu ondoren, B eta D taldekoak akordioaren batera ez badira ailegatzen, A taldekoak ahaleginduko dira konponbiderik justuena zein den erabakitzen eta paperean ez ezik, arbelean ere apuntatuko dute.**

**A TALDEAREN ARGUDIOAK**

.....

.....

.....

.....

.....

**B TALDEAREN ARGUDIOAK**

.....

.....

.....

.....

.....

**KONPONBIDE POSIBLEAK:**

.....

.....

.....

.....

.....

**KONPONBIDE JUSTUENA:**

.....

.....

- c) Bazkaltzeko orduan izugarrizko zarata sortzen da jangelan. D taldekoek zarata A taldekoen erruz sortzen dela diote eta A taldekoek kontrakoa diote. B taldekoak behatzaileak dira eta azpian agertzen diren datuak apuntatuko dituzte. 10. minutu pasatu ondoren, D eta A taldekoak akordioaren batera ez badira ailegatzen, B taldekoak ahaleginduko dira konponbiderik justuena zein den erabakitzen eta paperean ez ezik, arbelean ere apuntatuko dute.

**A TALDEAREN ARGUDIOAK**

.....

.....

.....

.....

**B TALDEAREN ARGUDIOAK**

.....

.....

.....

.....

**KONPONBIDE POSIBLEAK:**

.....

.....

.....

.....

**KONPONBIDE JUSTUENA:**

.....

.....

**KAPITULU ETA ARIKETA HONI BURUZKO ZURE IRITZIA:**

Zertan lagundu dit?	Nolako izan da?	Nola sentitu zara?
Nire burua hobeto ezagutzen: ..... <input type="checkbox"/>	Hagitz interesgarria:... <input type="checkbox"/>	Identifikatuta:..... <input type="checkbox"/>
Nire burua positiboki baloratzen:..... <input type="checkbox"/>	Interesgarria:..... <input type="checkbox"/>	Triste:..... <input type="checkbox"/>
Ingurukoak hobeto ezagutzen:..... <input type="checkbox"/>	Aspergarria:..... <input type="checkbox"/>	Haserre:..... <input type="checkbox"/>
Nire kideekiko harreman hobekak izaten:.. <input type="checkbox"/>		Pozik..... <input type="checkbox"/>
		..... <input type="checkbox"/>
<b>Zer kendu edo hobetuko zenuke?</b>		

## **11. BARKAMENA ESKATU, ESKERRAK EMAN**

**Gaurkoan barkamenaz eta eskerrak emateaz hausnarketa egin beharko duzu.**

**Binaka jarriko zarete zuen abizenaren arabera. Baina ez lehenengo, bigarren abizenaren arabera baizik! Lehenengo biak elkarrekin, hirugarren eta laugarrena elkarrekin... Azkenekoak bi beharrean hiru baldin badira, hirukotea osatuko dute. Bikoteen erdiak eskerrak emateko egoera bat aukeratuko dute eta bertze erdiak barkamena eskatzeko.**

**Hemen agertzen diren egoeren artean bat hautatu edo, nahiago baduzue, zuek asmatu bertze bat. Antzezpena bi aldiz egin beharko duzue; batean jarrera ezegokia aurkeztu eta bertzean egokia.**

**Prest? Aitzinera bada!**

**Eskerrak emateko egoerak;**

- 1. Komunera joan eta lerro handia dago sartzeko. Zu pixagale zara eta zure aitzinekoak bera baino lehenago sartzan uzten dizu.**
- 2. Txutxe denda batera joan zara eta txutxe batzuk hartu ondoren dirurik ez duzula ekarri ohartu zara. Zure ondoan dagoenak bere dirua eskaintzen dizu.**
- 3. Kaletik lasterka zoazela, eskolara berandu zoazelako, diru-zorroa erori zaizu eta ez zara ohartu. Zure giblean zegoen pertsona bat, ordea, ohartu da eta abisatu dizu.**
- 4. Mendi irteera batean, urik gabe gelditu zara. Ondoko kide batek bere botila eskaintzen dizu.**
- 5. Zuek nahi duzuen: .....**

**Barkamena eskatzeko egoerak:**

- 1. Jolas batean, lasterka ari zarela, bertze kide baten kontra talka egin duzu.**
- 2. Lagun batek Cd bat utzi zizun. Gaur da Cda itzultzeko eguna baina zuk ez duzu aurkitzen.**
- 3. Lagun batek utzitako bizikletaren gurpila zulatu duzu, nahi gabe, eta barkamena eskatu diozu. Bere erantzuna, alabaina, hagitx zakarra izan da. Bera da, oraingoan, barkamena eskatu behar dizuna.**
- 4. Gelan, irakasleak galdera bat egin dizu, etxean ikasi behar zenuten gai baten inguruan. Zuk erantzun okerra eman duzu eta zure ondoan dagoen kideak barre egin dizu, zure erantzuna zuzena ez izateagatik. Zu gaizki sentitu zara, barre horrekin mespretxatuta sentitu zarelako.**
- 5. Zuek nahi duzuen: .....**

**Aurreko ariketa bukatu ondoren, orain pentsatu azken bolada honetan noiz egin du norbaitek zuregatik zerbait eta zuk ez diozu eskerrik eman. Gauza simple bat izan daiteke: zure aita edo amari bazkaria prestatzeagatik, lagun bati bizikleta, borragoma, arkatza... uzteagatik, lan batean kide batek eskaintako laguntzagatik...**

**Bertze aldetik, pentsatu azken bolada honetan noiz ez diozun barkamenik eskatu norbaiti mina eman diozunean (eta oroitu, mesedez, mina ez dela soilik ematen kolpeen bidez, hitz eta keinuen bidez ere min handia ematen da eta). Hemen ere gauza sinpleak izan daitezke: norbaiti nahi gabe kolpe bat emateagatik, lagun batek utzitako CDa galtzeagatik, zita batera berandu ailegatzeagatik, ama edo aitari emandako erantzun zakar batengatik...**

**EMAN GABEKO ESKERRAK (idatzi zein egoeratan gertatu zaizun azken bolada honetan):**

.....

.....

.....

.....

.....

.....

**ESKATU GABEKO BARKAMENA (idatzi zein egoeratan gertatu zaizun azken bolada honetan):**

.....

.....

.....

.....

.....

.....

**KAPITULU ETA ARIKETA HONI BURUZKO ZURE IRITZIA:**

Zertan lagundu dit?	Nolako izan da?	Nola sentitu zara?
Nire burua hobeto ezagutzen: ..... <input type="checkbox"/>	Hagitx interesgarria: ... <input type="checkbox"/>	Identifikatuta:..... <input type="checkbox"/>
Nire burua positiboki baloratzen:..... <input type="checkbox"/>	Interesgarria:..... <input type="checkbox"/>	Triste:..... <input type="checkbox"/>
Ingurukoak hobeto ezagutzen:..... <input type="checkbox"/>	Aspergarria:..... <input type="checkbox"/>	Haserre:..... <input type="checkbox"/>
Nire kideekiko harreman hobeak izaten:.. <input type="checkbox"/>		Pozik..... <input type="checkbox"/>
		..... <input type="checkbox"/>
<b>Zer kendu edo hobetuko zenuke?</b>		

## **12. NORBERAREN BALIOA**

**Zenbat balio du altxor batek? Zenbat zure barnean aurkitzen den altxorrak? Zuk zeuk baino ezin diozu erantzun galdera honi.**

**Egunean, eta bizitzan zehar, aunitz dira garez eta egiten dugunez entzuten ditugun iritziak. Batzuk onak izaten dira eta bertze batzuk, aldiz, txarrak.**

**Gure buruari buruz dugun irudia aunitzetan kanpotik entzun ditugun iritzi horietan oinarritzen da. Guretzat inportanteak diren pertonek guri buruz transmititzen diguten irudia hagitz ona ez bada, nekez lortuko dugu guk geuk irudi ona osatzea.**


**Baina noizbait galdetzen diogu gure buruari ea euren iritzia ematen diguten pertsona horiek benetan ote dakiten gu nolakoak garen?**

**Jendeak, batzutan, iritziak errez ematen du horretaz ezer gutxi jakin arren. Zenbat hobe batzutan isilik egonen bagina!**

**Esaerak dioen bezala:**

**“Bi belarri eta aho bakarra eman zitzagun,  
entzuten dugunaren erdia hitz egin dezagun”**


**Baina gaurko helburua ez da belarri eta ahoaz solas egitea, iritziei buruz baizik. Jarraian zenbait irudi ikusiko dituzu eta horiei buruz jendeak eman dituen iritzi desberdinak.**




Erdiko borobila, erabat borobila al da?  
Batzuek baietz diote.  
Bertzeek ezetz. Zer diozu zuk?




Zein da biderik motzena?  
Batzuen ustez Atik Bra doana.  
Bertze batzuek Btik Cra doana dela  
motzena diote. Zuk zer diozu?



Norantz doaz geziak?  
Batzuen aburuz, eskuinetik ezkerrera.  
Bertze batzuek ezkerretik eskuinera doazela  
diote. Eta zuk, zer diozu?



Zein da erdian dauden bi borobil horietatik  
handiena?  
Batzuei iruditzen zaie goikoa dela eta bertze  
batzuei, ordea, behekoa.  
Eta zure iritziz?



Aunitzek lerroak ez direla  
paraleloak erranen dizute.  
Sinetsiko diezu? Zuk zeuk  
konprobatu.



**Gure inguruko iritziak ez dira beti zuzenak izaten. Horrexegatik, zuk zeuk eraiki beharko duzu zure buruari buruz duzun iritzia, kanpoko pertsona bakar baten iritzian oinarritu gabe.**

**Goazen ikustera, bada, barrenean duzun altxorra nolakoa den baina ez bertzeek zuri buruz erraten dutena kontutan hartuta, zuk zeuk barrenean duzunaz duzun iritzi positibotik abiatuta baizik.. Oraingoan, beraz, zure buruari buruzko ezaugarri positiboak idatziko dituzu eta ez izan lotsarik, mesedez, denok ditugu eta ezaugarri positibo andana! (ez dugu ukatu nahi hobetu behar ditugun ezaugarriak ere baditugula, baina horiek, zoritxarrez, normalean hagitz barneratuak izaten ditugu):**

**[Ariketa hau gelan egiteko denbora ez baduzu, etxean egin]**

**Zer egiten duzu ongi?**

**Eskolan:.....**

.....

.....

.....

**Etxean:.....**

.....

.....

.....

**Patioan:.....**

.....

.....

**Deskribatu zure ustez zertan zaren bereziki trebea. Denok ditugu trebetasun berezi batzuk; futboleak ona izan, irakurtzen trebea izan, haur txikiekin primeran moldatu, etxean bikain lagundu, mendian, bizikletan, soka saltoan... ederki moldatu, matematikak errez baino errazago egin, bikain kantatu, musika tresnaren bat hagitz ongi jo, lagunak arretaz entzun, txiste kontalari aparta izan... Aurkitu zertan zaren ona eta deskribatu zergatik uste duzu horrela dela:**

.....

.....

.....

**Zure inguruko jende aunitzek maite zaitu; lagunak, familiak, kideak... Pentsatu orain zergatik uste duzu maite zaituztela. Zein da zugaran ikusten duten altxorra? Ez da erantzun bakarria izan behar, jakina. (Erantzunak anitzak izan daitezke; hagitz maitagarria, dibertigarria, kalakaria, isila, futbolari ona, langilea, arduratsua... naizelako):**

**Nire amak:**.....

.....

**Nire aitak:** .....

.....

**Nire anaia-arrebek:** .....

.....

**Nire lagunak:**.....

.....

**Hurrengoan, zerbait ongi egiten ez duzulako norbaitek mespretxagarriak diren hitzak erran edo keinuak egiten badizkizu ez onartu! Zenbait gauza ez ditugu ongi egiten eta hobetu behar ditugu, dudarik ez. Baina ez onartu errespetuz egiten ez dizkizuten kritikak! Eta errespetuz egiten dizkizutenak ere baloratu onartu baino lehen! Agian, lehengo irudiekin gertatu bezala, iritzia ematen dizuna da oker dagoena eta ez zu.**

#### **KAPITULU ETA ARIKETA HONI BURUZKO ZURE IRITZIA:**

<b>Zertan lagundu dit?</b>	<b>Nolako izan da?</b>	<b>Nola sentitu zara?</b>
Nire burua hobeto ezagutzen: ..... <input type="checkbox"/>	Hagitz interesgarria:... <input type="checkbox"/>	Identifikatuta:..... <input type="checkbox"/>
Nire burua positiboki baloratzen:..... <input type="checkbox"/>	Interesgarria:..... <input type="checkbox"/>	Triste:..... <input type="checkbox"/>
Ingurukoak hobeto ezagutzen:..... <input type="checkbox"/>	Aspergarria:..... <input type="checkbox"/>	Haserre:..... <input type="checkbox"/>
Nire kideekiko harreman hobekak izaten:.. <input type="checkbox"/>		Pozik..... <input type="checkbox"/>
		..... <input type="checkbox"/>
<b>Zer kendu edo hobetuko zenuke?</b>		

### **13. HARGINAREN IPUINA**

**Gaurko ipuinean ikusi dugun bezala, pertsona batzuek esperientzia negatiboetan zentratzeko joera izaten dute eta, modu horretan, egunero izaten dituzten esperientzia onak ahazten dituzte. Gaurko ipuinean ere antzeko zerbait gertatzen zaio protagonistari. Bere lanak duen alde ona ikusi beharrean, txarra baino ez du ikusten. Baina bertze lanak (edo izaerak) probatu ahala, ohartzen da lan guztiek (eta esperientzi guzti guztiek) alde onak eta txarrak dituztela. Txarretan zentratuz gero, lana aldatuko dugu (edo eskola, bizitokia, lagunak...) baina, sarritan, egoera berrian errepikatzen da egoera zaharrean gertatzen zena.**

**Ezagutzen ahal duzu lanaz, etxez, eskolaz... sarritan aldatu duen norbait? Seguruenik lan, etxe, eskola... perfektuaren bila ibiliko da, baina horrelakorik ez dago. Ala bai?**

**Historian zehar, aunitz izan dira perfekzioaren bila ibili diren pertsonak. Horietariko batzuek makinak ere asmatu dituzte helburu horrekin. Orain guk geuk asmatuko dugu gure makina. Ados?**

**Gaur ere taldeak osatuko ditugu. Oraingoan hiruko taldeak izanen dira. Baina zein da talde perfektua? Kasu honetan, elkarlanean aritzeko prest dauden hiru pertsonak osatzen dutena. Gela honetako neska – mutil guztiak elkar lanean aritzeko prest zaudetenez, osatuko ditugun talde guztiak perfektuak izanen dira.**

**Taldeak egiteko matematikak erabiliko ditugu. Bakoitzak kontatu behar ditu zenbat hizki dituzten bere izen eta bi abizenek. Adibidez:  
Jon (3) Larretxea (9) Maia (4):  $3+9+4= 16$ . Hau egin ondoren, hirunaka elkartuko zarete, lortu duzuen emaitzaren arabera. 9-10-11 hizki dituztenak elkarrekin. 12-13-14 dituztenak elkarrekin, 15-16-17koak elkarrekin. Gutxienetik gehienara.**

**Taldeetan ondoko galdera hauei erantzun beharko diezue:  
Zein da etxe perfektua? Ezagutzen baduzue hemen jartzen ahal duzue noren etxea den (zuen ezagun batena edo pertsonai famatu batena)  
Azaldu nolakoa den zuen etxe perfektua:**

.....  
.....  
.....

**Zein da lanbide perfektua eta bere ezaugarriak?**

.....  
.....

**Gorputz perfektua: Ba al dago gorputz perfekturik? Nolakoa da?**

.....  
 .....  
 .....

**Kirol perfektua: Zein da kirolik hoberena eta zergatik?**

.....  
 .....  
 .....

**Lagun perfektua: Zein ezaugarri ditu lagun perfektuak? Ezaugarri berberak eduki behar ditu lan bat egiteko bilatzen duzun laguna, kirola egitekoa eta parrandan ibiltzekoa?**

.....  
 .....  
 .....

**Bukatzeko galdera bat; Zerk emanen digu zorientasun gehiago, perfektioaren bila ibiltzeak ala garen bezala garelako onartzeak?**

.....  
 .....  
 .....

**Ez, gu ez gara perfektuak, gure ingurua ez da perfektua, gure lagunak ez dira perfektuak... Baina, zorionez, perfektuak ez bagara ere, gauza on aunitz ditugu. Balora ditzagun merezi duten moduan!!**

**KAPITULU ETA ARIKETA HONI BURUZKO ZURE IRITZIA:**


Zertan lagundu dit?	Nolako izan da?	Nola sentitu zara?
Nire burua hobeto ezagutzen: ..... <input type="checkbox"/>	Hagitz interesgarria:... <input type="checkbox"/>	Identifikatuta:..... <input type="checkbox"/>
Nire burua positiboki baloratzen:..... <input type="checkbox"/>	Interesgarria:..... <input type="checkbox"/>	Triste:..... <input type="checkbox"/>
Ingurukoak hobeto ezagutzen:..... <input type="checkbox"/>	Aspergarria:..... <input type="checkbox"/>	Haserre:..... <input type="checkbox"/>
Nire kideekiko harreman hobekak izaten:.. <input type="checkbox"/>		Pozik..... <input type="checkbox"/>
		..... <input type="checkbox"/>
<b>Zer kendu edo hobetuko zenuke?</b>		

## 14. NIREARI EUTSI

Orain hurrengo tutoretza saioan egin nahiko zenukeena aukeratuko duzu (esku lana, kirola, musika aditza, ordenagailua). Gauza bakar bat aukeratu behar duzu eta horixe da hurrengo saioan egingen duzuna. Paper batean idatzi behar duzu zein aukeratzan duten bertze kideek jakin gabe. Bete ondoren, zure izena jarri eta irakasleari eman.

Hemen ere idatzi:

Hurrengo saioan ..... egin nahi dut.



Segi Egunkariko 14. kapitulua irakurtzen.

Orain irakasleari emandako proposamenak arbelean apuntatzeko garaia da. Irakasleak arbelean jarriko du zuek aukeratu duzuen eta zuek hemengo taula honetan.

ZER EGIN NAHI DUGU?	NORTZUEK NAHI DUGU?

**Aukeratu duzuna egin baino lehen, erantzun galdera hauek, mesedez.  
 Gauza bera al da niri gustatzen zaidana eta nire lagunei gustatzen zaiena?  
 Jakina, sarritan niri eta nire lagunei gauza bera gustatzen zaigu eta horrexegatik bi  
 gauzak batera uztar daitezke. Baina horrela gertatzen ez denean...**

**Zer da inportanteagoa niretzat, nik benetan nahi dudana egitea ala nire lagunek  
 nahi dutena egitea?**

.....  
 .....

**Zergatik?:**

.....  
 .....

**Zer nahiago dut nik; nire lagunekin egon (nahiz egiten dutena ez gustatu) ala  
 gustuko zerbait egin gustukoa ez dudan jendearekin?**

.....  
 .....

**Zergatik?**

.....  
 .....

**Orain bai, orain nahi duzuna egin ezazu eta, batez ere, ongi pasa ezazu, zuk nahi  
 duzuna eginen duzulako.**

**KAPITULU ETA ARIKETA HONI BURUZKO ZURE IRITZIA:**

<b>Zertan lagundu dit?</b>	<b>Nolako izan da?</b>	<b>Nola sentitu zara?</b>
Nire burua hobeto ezagutzen: ..... <input type="checkbox"/>	Hagitx interesgarria:... <input type="checkbox"/>	Identifikatuta:..... <input type="checkbox"/>
Nire burua positiboki baloratzen:..... <input type="checkbox"/>	Interesgarria:..... <input type="checkbox"/>	Triste:..... <input type="checkbox"/>
Ingurukoak hobeto ezagutzen:..... <input type="checkbox"/>	Aspergarria:..... <input type="checkbox"/>	Haserre:..... <input type="checkbox"/>
Nire kideekiko harreman hobeak izaten:.. <input type="checkbox"/>		Pozik..... <input type="checkbox"/>
		..... <input type="checkbox"/>
<b>Zer kendu edo hobetuko zenuke?</b>		

## **15. BESARKADAK**

**Irakurri duzunez, bizitzan egunero hiru besarkada behar ditugu ongi sentitzeko. Zenbat ematen duzu zuk eta zenbat ematen dizute?**

**Baina hori beranduago ikusiko dugu. Orain goazen jolastera.**

**Lehendabiziko jolasa: *Besarkada musikalak.***

**Patiora edo leku zabal batera joanen gara. Ikasle guztiak kanta ezagun bat kantatu eta dantzatzen hasiko zarete. Pirritx eta Porrotxen “Maite Zaitut” kanta ezagutzen duzue, ezta? Ba, horixe, denak kanta eta dantzaka.**

**Dantzaka segituko duzue irakasleak zenbaki bat erran arte. “Bi” erraten badu, denak binaka jarri, besarkada baten bidez elkar-lotuz. “Lau” erranez gero, besarkada lauren artean egin. “Hamar” erranez gero, hamarnaka besarkatu. “Bat” erranez gero, norberak bere burua besarkatu. Eta “zero” erranez gero, denak atera lasterka eta ezkutatu. 10 segundo duzue ezkutatzeko. Gero berriro itzuli patiora eta dantzan segi.**

**Tarteka ikasle batzuk bikote, hirukote edo seikotean... sartu gabe geldituko dira, talde guztiak osatu eta haiek taldeetan sartzeko tokirik gabe gelditu direlako. Ez da deus gertatzen. Hurrengo zenbakiarekin segitzen dute jolasten. Oroitu zenbaki bat erran eta besarkatu ondoren berriro dantzan hasi behar duzuela hurrengo zenbakia erran arte.**

**Bigarren jolasa: *Stop besarkatuta.***

**Denok ezagutzen duzue Stop jolasa ezta? Taldekideak hiruko taldeetan jarriko ditugu. Hiruko talde bat (A taldea, adibidez) geldituko da (petodunak) eta bertzeak harrapatzen ahaleginduko dira. Norbait harrapatuz gero, pertsona hori geldirik geratuko da, besoak zabalik, norbait askatzera etorri arte. Askatzeko, libre dagoen bertze kide bat berarengana hurbildu eta besarkada bat eman behar dio. A taldea hiru minututan taldekide guztiak harrapatzen ahaleginduko da. Hiru minutuak pasatu ondoren (edo A taldeak taldekide guztiak lehenago harrapatzen baditu) B taldea geldituko da. Horrela talde guztiak gelditu arte.**

**Oroitu harrapatuta dagoen norbait askatzeko besarkatu behar dela. Ez da aski ukitzearekin.**

**Hirugarren jolasa: *Ameba***

**Kide guztiak hiru taldeetan banatuko ditugu. Talde bakoitzeko kideek borobilean elkartuko dira, ahalik eta borobilik txikiena osatuz, kideen artean itsatsiz. Irakasleak erakutsiko dien ibilbidea egin beharko dute beti ere borobila mantenduz eta kideen artean hutsunerik sortu gabe.**



**Ongi pasatu al duzu? Ba, orain proposatzen dizugun ariketarekin ere ongi pasatuko duzula espero dugu.**

**Asteburu honetan etxean zenbat besarkada ematen diren kontatuko duzu. Zu ez saiatu ohi baino gehiago ematen. Bertzerik gabe, altxatzen zarenetik lokartu arte zenbat besarkada eman dizkizuten eta zenbat eman dituzun kontatu. Baina irakurri duzuna kontutan hartuta, ez dituzu soilik besarkadak kontatuko; besarkadak, musuak, laztanak, masajea... ukimenarekin zerikusia duen guztia.**

<b>BESARKADAK LARUNBATEAN</b>	<b>BESARKADA IGANDEAN</b>
<b>GOIZEAN</b>	<b>GOIZEAN</b>
<b>EGUERDIAN</b>	<b>EGUERDIAN</b>
<b>GAUEAN</b>	<b>GAUEAN</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>GUZTIRA</b>

**Zer iritzi duzu zuk besarkadei buruz? Erraten duten bezala, beharrezkoak iruditzen zaizkizu? Zergatik?**

.....  
 .....

**KAPITULU ETA ARIKETA HONI BURUZKO ZURE IRITZIA:**

<b>Zertan lagundu dit?</b>	<b>Nolako izan da?</b>	<b>Nola sentitu zara?</b>
Nire burua hobeto ezagutzen: ..... <input type="checkbox"/>	Hagitz interesgarria:... <input type="checkbox"/>	Identifikatuta:..... <input type="checkbox"/>
Nire burua positiboki baloratzen:..... <input type="checkbox"/>	Interesgarria:..... <input type="checkbox"/>	Triste:..... <input type="checkbox"/>
Ingurukoak hobeto ezagutzen:..... <input type="checkbox"/>	Aspergarria:..... <input type="checkbox"/>	Haserre:..... <input type="checkbox"/>
Nire kideekiko harreman hobekak izaten:.. <input type="checkbox"/>		Pozik..... <input type="checkbox"/>
		..... <input type="checkbox"/>
<b>Zer kendu edo hobetuko zenuke?</b>		



## 16. ARGIA

### EGUNA:

**Zu ere, kapitulu honetako protagonistak bezala, eskola utzi eta institutura joateko gertu zaude. Zuri ere aldaketa garaiak datozkizu. Aldaketei modu ezkorrean edo modu positiboan egiten ahal diegu aurre. Ados egonen zara modu positiboa hobea dela, ezta? Batzuetan, urduri jartzen gara eta gertatzen ahal zaizkigun gauza txar pilo batekin hasten gara pentsatzen. Baina kontrakoa ere egiten ahal dugu, hau da, gertatzen ahal zaizkigun gauza on guztiekin pentsatzen ahal dugu! Frogatu nahi?**

**Orri honetan lagun bati bidaliko diozun gutunaren zirriborroa idatziko diozu. Gutun horretan zure lagunari Institutuan zein gustura zauden eta zergatik kontatuko diozu (bai, egia da oraindik ez zarela joan institutura baina ariketa honen bidez, Institutuan gustura egoteko prestatzen hasten zara zure burua). Proposamen bat; idatzi dituzun irakasle jatorrei buruz, gelakide berriei buruz, liburu interesgarriei buruz, ikasgai dibertigarriei buruz, errez gainditzen dituzun azterketei buruz... nahi duzuna baina dena modu positiboan. Hemendik hilabete batzuetara, benetan hasia zarenean, berriro irakur dezakezu gutun hau eta konprobatu jarri duzun guztia egia dela!**

..... maitea:

### KAPITULU ETA ARIKETA HONI BURUZKO ZURE IRITZIA:

Zertan lagundu dit?	Nolako izan da?	Nola sentitu zara?
Nire burua hobeto ezagutzen: ..... <input type="checkbox"/>	Hagitz interesgarria:... <input type="checkbox"/>	Identifikatuta:..... <input type="checkbox"/>
Nire burua positiboki baloratzen:..... <input type="checkbox"/>	Interesgarria:..... <input type="checkbox"/>	Triste:..... <input type="checkbox"/>
Ingurukoak hobeto ezagutzen:..... <input type="checkbox"/>	Aspergarria:..... <input type="checkbox"/>	Haserre:..... <input type="checkbox"/>
Nire kideekiko harreman hobekak izaten:.. <input type="checkbox"/>		Pozik..... <input type="checkbox"/>
		..... <input type="checkbox"/>
<b>Zer kendu edo hobetuko zenuke?</b>		

## **17. GURE FESTA**

**EGUNA:.....**

**Guk ere besta bat antolatuko dugu ikasturte bukaerako. Horretarako hiruzpalau kideetako taldeak eginen ditugu eta hurrengo galderei erantzunen diegu. Ondoren, talde guztien artean ados jarri beharko dugu eta proposamen bakarra egin. Ea zer moduz ateratzen den.**

**Zuen irakasleak poltsa batean paper batzuk izanen ditu. Paper bakoitzak zenbaki bana dute; 1,2,3,4,5... Bakoitzetik hiruna. Tokatzen zaizuen paperaren arabera elkartuko zarete.**

**Hala ere, taldeetan lanean hasi baino lehen, kontuan har ezazue talde barrenean denen artean kolaboratu behar duzue eta denen iritziek pisu bera eduki behar dute. Ados?**

**Aitzinera, bada!**

**Taldeko guztiek ados jarri behar duzue ondorengo aspektuetan:**

### **IKASTURTE BUKAERAKO BESTA HANDIA: GURE TALDEAREN PROPOSAMENA:**

<b>BESTAREN HELBURUA</b>	
<b>NON EGINEN DA</b>	
<b>DATA ETA ORDUA</b>	
<b>GONBIDATUAK</b>	
<b>JANARIA ETA EDARIA</b>	
<b>MUSIKA MOTA</b>	
<b>LAN BANAKETA</b>	
<b>BERTZELAKOAK</b>	

**Orain talde desberdinetako emaitzekin proposamen bakarra osatu behar dugu.**

**IKASTURTE BUKAERAKO BESTA HANDIA: DENEN ARTEKO ERABAKIA**  
**ONGI PASA**

<b>BESTAREN HELBURUA</b>	
<b>NON EGINEN DA</b>	
<b>DATA ETA ORDUA</b>	
<b>GONBIDATUAK</b>	
<b>JANARIA ETA EDARIA</b>	
<b>MUSIKA MOTA</b>	
<b>LAN BANAKETA</b>	
<b>BERTZELAKOAK</b>	

**ETA HAU DA DENA. MILA ESKER ZUEN PARTE  
HARTZEAGATIK,  
BIHOTZ BIHOTZEZ.**

## EBALUAZIOA

### **EGUNA:**

Orain arte ikusi duzun guztia ebaluatzeko garaia iritsi zaigu. Badakizunez, kapitulu eta ariketa bakoitzaren ondoren, ebaluazio txiki bat egin agertzen zen. Orain ebaluazio orokorra egiteko eskatzen dizugu, aurreko ebaluazioetan jarri duzuna kontuan harturik, noski.

### **ISTORIOARI DAGOKIONEZ:**

#### **Zer iruditu zaizu Marian eta bere ikasleen istorioa?:**

Hagitz interesgarria:...

Interesgarria:.....

Aspergarria:.....

#### **Istorioan agertzen diren egoerek lotuta daude gelan ikasturtean zehar gertatzen denarekin?:**

Hagitz lotuta dago:.....

Nolabaiteko lotura badu:.....

Gelako gertaerek eta egunkariko istorioek ez dute zer ikusirik:.....

#### **Marianek ohitura handia du bere ikasleei ipuinak kontatzeko. Zer iruditu zaizkizu ipuinak?:**

Hagitz interesgarriak:..

Interesgarriak:.....

Aspergarriak:.....

#### **Ipuinak gatazkak konpontzeko orduan lagungarriak izaten ahal direla iruditzen zaizu?:**

Hagitz lagungarriak:.....

Lagungarriak dira:.....

Ez dira lagungarriak:....

### **IKASI DUZUNARI DAGOKIONEZ:**

#### **Zertan lagundu dizu Egunkariaren istorio honek:**

Nire burua hobeto ezagutzen: .....

Nire burua positiboki baloratzen:.....

Ingurukoak hobeto ezagutzen:.....

Nire kideekiko harreman hobekak izaten:..

#### **Zer kendu edo hobetuko zenuke?**

#### **Orokorrean zein nota jarriko zenioke material honi (0tik 9ra):**